

Literatura

Harrotasuna eta aurrejuzkuak
Jane Austen.

Itzultzailea: Ana Isabel Morales.
Ibaizabal, 1996



Lasai eseri eta luze irakurtzeko parada

“It’s a truth universally acknowledged, that a single man in possession of a good fortune must be in want of a wife”. Iaz 200 urte bete zituen hasiera hori duen jatorrizko lanaren argitalpenak. Euskaraz duela 19 urte argitaratu zen lehenbizikoz hurrengo hasiera honekin: “Egia unibertsalki onartua da fortuna handiaren jabe den gizon ezkongai batek emaztearen premia eduki behar duela”.

Ana Isabel Morales itzultzaileak egindako hitzazurre lagungarrian dugu Austenen ekarpen literario nagusiaren berri: “Jende arruntaren ibilerak egunero ko bizimoduan erakutsiz eman zion nobelari bere molde modernoa”. Oso gaztetatik hasi zen idazten, liburu honi dagokionez, *First impressions* izenburuarekin idatzita zuen lehen bertsoia 21 urterekin eta 27 urte beranduago *Pride and prejudice* izenburuarekin kaleratu zuen. XVIII. mendeko erdi eta goi mailako familia ingelesaren erretratua, edo karikatua, egiten digu lan honetan.

Elkarrizketa adimentsuak eta literaturaren balioespena agertzen dira tarteka garai hartako sozializazio prozesu generizatu eta klasistari buruzko koadro honetan. Moralesek gogorarazten digun moduan, orduko familia onetako alaben aukerak hiru ziren: oinordekoa izatea, ahalik eta ezkontza onena egitea, eta karitatetik bizitzea. Beraz, garaiko gai garrantzitsuenetako bat dugu hizpide bertan, ezkontza (ona)rena. Lan honetan agertzen diren protagonista

guztiak, izan emakume zein gizon, ezkontzeko asmatan dabilta, eta aukera onenen bila ibiltzen dira dantzaldi, gutun eta bisitetan.

Horretarako oso garrantzitsua da arau sozialak ondo betetzea, dirua, edertasuna eta bertutea izateaz aparte, jakina. Eta horretan dago nire ustez liburu honen xarma. Austen bere protagonista femeninoarekin, Elizabeth Bennetekin, oreka baten bila doa. Jendartean onartua izateko behar diren arauak beteko ditu honek, baina bere izaera moldatu gabe. Ezkontza bizi-proiektu moduan onartzeko prest dago, baina ez du agertzen zaion lehen aukera hartuko asebetetzen ez badu. Bere emakume roletik espero dena emango du, baina bere estilo eta irizpideei muzin egin gabe. Austen umoreaz eta zeharkako estiloaz baliatuko da “arrazoia vs. emozioak” auzia orriotan plazaratzeko, pertsonaien konplexutasuna agerian jarriz eta “lehen inpresioak” okerrak izaten direla agerian utziz, hasieratik harro dela pentsatzen dugun pertsona ez delako beti eta bakarrik horrelakoa, eta berdin gertatzen da aurrejuzkuak dituenarekin ere.

Moralesek Ch. Perkins-Gilmanen *Hormako paper horia* eta V. Woolfen *Emakumeen lanbideak* edo *Etxeke aingerua biltzea* argitaratu ditu EDO! argitaletxean orain dela ia 20 urte Austenen liburu hau itzuliz hasi zuen bideari jarraiki, bere hitzetan “isildutako ahotsak argitara ateratzeko helburuarekin, emakumeek idatzitakoak eta generoaren ikuspegitik ekarpen bat egiten duten lanetan dauden pentsarazteko tresnak euskaraz jartzeko xedearekin: izenak duena izana duelako eta sarea egitea delako garrantzitsuena”. Helburu horrekin gomendatzen dugu klasiko hau eta baita beste helburu batekin ere; Austenen hizkuntza eta kultura darabiltenek dioten moduan “slow food” eta “food for thought” pentsamenduekin bat egin dezagun, une batez bederen. Ellen Kuzwayoren lan bateko izenburuak dioten moduan *Siéntate y escucha*, liburua hartu, eseri zaitez denboraz, eta irakurri Austenek kontatu nahi dizuna bere garaiko jendearen ohiturei buruz. Zenbait gauza ez baitira hainbeste aldatu azken bi mendeotan. Ez duzu uste? ■



Amaia Alvarez Uria

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com